
2017ko maiatza | Buletinaren 064. zbk.

Gipuzkoan 55 urte eta gehiagoko bost pertsonatik batek ikasten jarraitzen du

"Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza eta biztanleria aktiboa Gipuzkoan" txostenaren helburua 55 urte eta gehiagoko pertsonen eguneroko bizitzan ikaskuntzak duen garrantziaren inguruko emaitzak aurkeztea da.

>>[Informazio gehiago](#)

Gipuzkoako eskola uzte goiztiarraren tasa (%7,8) Europar 2020 Estrategiaren helburuaren azpitik kokatzen da jada (%10)

Eskola uzte goiztiarraren tasa gehienez eskuratutako ikasketa maila bigarren hezkuntzako lehen etapa izan denean eta ondorengo urteetan inongo ikasketa edo prestakuntzatan ari ez den 18 eta 24 urte bitarteko biztanleen ehunekoa da.

2016ko datuak oraindik EB-28ko eskola uzte goiztiarraren tasa (%10,7) 2020 Estrategiak gai honen inguruan ezartzen duen helburuaren gainetik kokatzen du, %10ean kokatzen duena tasa hau. Aipatu azken urteetan tasa hobetzen joan dela.

>>[Informazio gehiago](#)

Euskadiko LH Duala: gaurko irtenbidea etorkizuneko erronketara

Eusko Jaurlaritzak kanpaina berri bat jarri berri du abian, Confebaskekin batera, eta ikastetxeen bitartez Euskadiko Lanbide Heziketa Duala sustatzeko.

2012 urtean martxan jarri zenetik, dagoeneko 1.800 euskal enpresak eta LH ikastetxeetako 2.000 ikaslek baino gehiagok parte hartu dute LH dualeko programan. 2016/2017 ikasturtean 1.200 gazte baino gehiago ari dira Lanbide Heziketa Duala egiten ia 800 enpresatan, programa abian jarri zenetik ikasle kopurua hamar aldiz handiagoa eta parte hartzen duten enpresena zazpi aldiz handiagoa izanik.

>>[Informazio gehiago](#)

UPV/EHUko udako ikastaroen edizio berria

Euskal Herriko Unibertsitateak ekaina eta iraila artean ospatuko den udako ikastaroen XXXVI edizioa aurkeztu berri du.

Udako Ikastaroen helburu nagusia gizarteko hainbat eragileren arteko eztabaidarako, ikaskuntzarako eta pentsamendu kritikorako topagune bat eskaintzea da.

>>[Más información](#)

Enpresetan ikasi: Hobetuz 2017 deialdia

Lanbidek, Euskal Enplegu Zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen aldetik garatzen diren prestakuntzako estrategia-ekintzak egiteko laguntza ekonomikoen Hobetuz 2017 ekitaldirako oinarriak eta baldintzak argitaratu berri ditu eta enpresa osatzen duten pertsonen gaitasunak eta kualifikazioak hobetzera bideratuta daudenak. Hau da, laguntza hauen bitartez lan esparruan ikasten jarraitzeko baldintzak finkatzea bilatzen da.

>>[Más información](#)

Lanbide Heziketaren esparruan ikaskuntzarako mugikortasunera bideratutako laguntza berriak

Erasmus+ markoaren barruan kokatuta, eta Lanbide Heziketako esparruan mugikortasunera zuzenduta, Gobernu Kontseiluak ikaskuntza-arrazoiengatik pertsonak mugitzeko jarduerak antolatu eta garatzeko diru-laguntzak deitzen dituen agindua onartu du.

>>[Más información](#)

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza, erabakigarria adimen artifizialaren aroan

Ondorengo artikuluak dagoeneko onartu den errealitate bat adierazten du: adimen artifizialak, digitalizazioak, eguneroko bizitza presente dagoen prozesu bat da eta bizitzako eta lana egiteko eran aldaketa suposatuko duen fenomeno bat da.

Urteetan eman diren ekoizpen eta gizarte aldaketa desberdinetan zehar, ikasi dena pertsonen bizitza osoan zehar balagarria izan dela adierazten du artikuluak, baina berrikuntzaren hazkunde esponontzialak ikasitako birpentsatzea eskatzen du eta gaitasunak eta ahalmenak berritzea ezinbestekoa bihurtzen da.

>>[Informazio gehiago](#)

HEZIPLUS ikaskuntza jaialdia

Datorren larunbatean, maiatzak 20, HEZIPLUSek antolatutako Ikaskuntzaren Jaialdia ospatuko da Donostiako Konstituzio Plazan.

HEZIPLUS Gipuzkoan ikaskuntzaren inguruan ematen diren ekintza desberdinak ezagutzeko plataforma parte hartzailea da. Ekimenak honako gaiekin lotuta daude: Osasuna eta Ongizatea, Kultura, Gizartea, Teknologia edo Zientzia eta Natura.

>>[Informazio gehiago](#)

Beste albisteak...

>>[Interesa duten bestelako albisteak](#)

Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Oreko Departamentua

Gipuzkoa Plaza, z/g
20004 Donostia-SanSebastián • Gipuzkoa

T. +34 943 112 217
info@ikasmina.net

Gure zerrendatik zure harpidetza bertan behera utzi nahi izanez gero, esteka honetan klik egin: [Sakatu hemen buletineko baja berresteko](#)
Gure buletin guztiak arazorik gabe jasotzeko, sartu info@ikasmina.net zure kontaktuen zerrendan.